

Eboluzioaren teoria

Darwin baino 500 urte lehenago

TUNIS, 1332KO MAIATZAREN 27A. Ibn Khaldun historialari eta filosofoa jaio zen Al Andaluseko familia izandun baten baitan.

Soziologia, historiografia, demografia eta ekonomia modernoaren sortzaileetakotzat jotzen da, nagusiki 1377ko *Muqaddimah* liburuan egindako ekarpenengatik. *Muqaddimah* hitzak “sarrera” edo “hitzaurrea” esan nahi du arabieraz eta, berez, *Kitābu l-ibar* (Ikasgaien liburua) munduko historiari buruzko lanaren hitzaurrea izateko sortu zuen egileak. Baina Ibn Khaldun bera bizirik zen artean ere gainerako sei liburukien artean nabarmendu zen, lan independentea bailitzan.

Muqaddimah horretan Khaldun historia unibertsalaren nolabaiteko ikuspegia ematen lehenetarikoa izan zen. Gatazka sozialaren teoria sortu zuen eta gizarteaztertzeko zientzia baten premia aldarrikatu. Ekonomian “mantenu” eta “etekin” kontzeptuak bereizi zituen, besteak beste. Eta darwinismoaren aitzatzen –edo herenaitonatzat– jotzen da, Darwin bera jaio baino ehunka urte lehenago idatzitakoengatik.

“Ondoren, krazioaren munduari erreparatu behar-ko genioke. Mineralekin hasi zen, eta modu asmotsuan, mailaz maila, landare eta animalietaraino egin zuen aurrera. Mineralen azken fasea landareen lehen fasearekin lotuta dago, hala nola belarrekin eta hazirik gabeko landareekin. Landareen azken faseko aleak, esaterako, palmondoak eta mahatsondoak, animalien lehen fasearekin konektatuta daude, hau da, ukitzeko ahalmena besterik ez duten barakuilu eta oskoldunekin. Sortutako izaki horiei dagokienez, ‘lotura’ hitzak esan nahi du talde bakoitzeko azken fasea erabat prest dagoela hurrengo taldeko lehen fasea izateko”.

Eta hurrengo paragrafoan are nabarmenagoak dira espezieen eboluzioaren teoriaren zantzuak. “Orduan,



Ibn Khaldunen (1332-1406) irudia, Tuniseko 1994ko hamar dinarreko billetean.

animalien mundua zabaldu zen, espezieak ugaritu ziren, eta mailakako krazio prozesua, azkenean, pentsatzeko eta hausnartzeko gai den gizakiraino iritsi zen. Gizakiaren fasea tximinoen mundutik dator; tximinoetan zolitasuna eta pertzepzioa aurki daitezke, baina benetako hausnarketaren eta pentsatzearen fasera iritsi gabe. Une horretan gizakiaren lehen fasean sartzen gara”.

482 urte geroago, Charles Darwinek *Espezieen jatorria: hautespen naturalaren bidez* lan “berritzailea” idatzi zuen. ■

Arrastoak

Turismoak gerrak baino kalte handiagoa egiten dio ondareari

AOTEAROA-CC BY SA



GIZON-EMAKUME GUZION kultur ondare diren 802 tokiak urtero aztertzen ditu UNESCOk, zer egoeratan dauden jakiteko. 1979tik 2013ra arteko txosten horiek aztertu dituzte, ondarearentzat kaltegarrienak diren elementuak identifikatzeko. Gatazkak faktore erabakigarria direla pentsatzekoa da, batez ere azkenaldian Palmira (argazkian) suntsitu izanaren berri zabaldu

denean. Baina txostenek oso bestelako ondorioa utzi dute agerian: Gerren eragina “hutsala” da beste faktore batzuekin alderatuta: erakundeen kudeaketa kaxkarra, kontrolik gabeko hirigintza garapena eta erabilera desegokia. Azken puntu horretan, turismoaren gehiegizko ustiatzea nabarmentzen da: 1980an turismoak toki horien %8ri eragin zien eta 2013an, berriz, %75i. ■